

COVID-19AN POSITIBO EMAN DUTEN EDO KONTAKTU ESTUA IZATEAGATIK BERROGEIALDIAN EGON BEHAR DUTEN IKASLEEN KASUAN **AZTERKETA OFIZIALAK** EGITEKO PROTOKOLOA

Ikasle bat Covid-19an positibo bada edo Osakidetzaren definizio eguneratuari jarraituz harreman estua¹ kontsideratu eta berrogeialdian egon behar badu, ezin izango da unibertsitatera joan azterketa ofizialak egitera. Egoera horretan dauden ikasleek beste data batean azterketa² egiteko aukera izan dezaten, ondorengo urratsak jarraitu beharko dituzte:

1. Ikasleak tutorearekin harremanetan jarri beharko du posta elektronikoz (monika@imh.eus edo agarro@imh.eus) graduaren kasuan, edo titulazioaren koordinatzailearekin (naiara@imh.eus) masterraren kasuan. Pertsona horrek emango die irakasleei egoera bakoitzaren berri. Azterketa ofizialaren eguna baino lehen jarri behar da harremanetan.

2. Garrantzitsua da posta elektronikoz argi eta garbi adieraztea ikaslearen izen-abizenak eta NANA, bai eta joan ezin izango den azterketa ofizialak, irakasgaiaren izena eta irakaslearen izena ere. Informazio osoa ez duten eskabideak ez dira kudeatuko.

3. Eusko Jaurlaritzak protokoloan egindako aldaketak kontuan hartuta, aurrez aipatutako egoeraren batean dagoen ikasleak COVID erantzukizunpeko adierazpena bete beharko du azterketa ofizialetan ez egotea justifikatzeko.

Era berean, ikasleak, halakorik badu, posta elektronikoz bidali behar du Osakidetzak egindako PCR probaren edo antigeno-test ofizialaren emaitza (dokumentu hori Osakidetzako nire osasun-karpetan eskuratu ahal izango da: <https://micarpetasaludberria.osakidetza.eus/eu/web/guest/acceso>).

Azterketa ofizialaren ordua baino lehen, aurrez aipatutako agiriren bat aurkezten ez duten ikasleei ez zaie Covid-19aren ondoriozko ez-ohiko azterketa egingo.

4. Egoera horretan dauden ikasleei ez-ohiko azterketa egingo zaie Covid-19agatik. Begiratu egutegia data berriekin.

Egutegian adierazitako datetatik kanpo ez da Covid-19agatik aparteko beste azterketarik egingo; ikasle batek Covid-19aren ondorioz ezingo balu azterketa adierazitako bi datetako batean egin, deialdi horretan “ez aurkeztu” kalifikatuko da.

1 Ez dute berrogeialdirik egin behar kasu hauetan:

a) Txertaketa-jarraibide osoa duten sintomarik gabeko pertsonak, txertoaren immunitatea lortzeko adierazitako denbora igaro bada.

b) Azken 180 egunetan Covid-19 gaitza igaro duten pertsonak.

2 Protokolo honek azterketa ofizialetarako bakarrik balio du.